

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HODI INDUSTRIALEN PROBA- ETA ENTSEGU-PLANA.	Iraupena	30
		Espezifikoa	
Kodea	UF0875		
Lanbide-arloa	FABRIKAZIO MEKANIKOA		
Lanbide-eremua	Eraikuntza metalikoak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Hodi industrialen diseinua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Hodi industrialen instalazioen diseinua.	Iraupena	130
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Hodiak diseinatzea instalazioak fabrikatzeko eta muntatzeko.	Iraupena	70
	Hodi industrialak fabrikatzeko eta muntatzeko espezifikazioak.	Iraupena	30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC1150_3ko LB4 lanbide-burutzapenarekin: HODI INDUSTRIALEN INSTALAZIOAK DISEINATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hodien instalazioaren fidagarritasun-maila egiaztatzeko aukera ematen duen proba- eta entsegu-plana prestatzea, kalitate-arauak eta laneko eta inguruneko arriskuak prebenitzeko arauak betez.

EI1.1 Indarrean den legeriaren arabera behar diren entsegu eta probak deskribatzea.

EI1.2 Probak eta entseguak egiteko behar diren ekipoak, segurtasun- eta kontrol-elementuak zehaztea.

EI1.3 Instalazio baten zerbitzuaren fidagarritasun-maila egiaztatzeko kasu praktiko batean:

- Entsegu-plana zehaztea, behar diren prozedurak, giza baliabideak eta baliabide materialak adieraziz.
- Kontratuan eta araudietan eskatzen diren kalitate- eta segurtasun-eskakizunak beteko direla bermatuko duten balioak definitzea.
- Prozesua dokumentatzea.

Edukiak

. Hodi industrialen instalazioetako entseguak eta probak

- o Indarrean den araudiaren arabera egin beharreko probak eta entseguak:
 - Estankotasun-probak.
 - Motak, ezaugarriak eta aplikazioak.
 - Makinak, ekipoak eta erremintak.
 - Kontrolatu beharreko parametroak.
 - Egitura-probak.
- o Beharrezko diren segurtasun- eta kontrol-elementuak zehaztea.
- o Babestu beharreko elementuak zehaztea:
 - Gehigarriak.
 - Neurtzeko tresnak.
 - Kontrola eta automatismoak.
 - Segurtasun- eta kontrol-elementuak.

2. Hodi industrialen proiektuen garapena.

- o Hodi industrialeko proiektu bat garatzeko kontuan hartu behar diren beharrak.
 - Informazio- eta kontsulta-iturriak.
- o Proiektu baten osagaiak.
 - Deskribapena eta analisisa.
- o Industria-nabeetako hoditeria-proiektuak.
- o Segurtasun- eta ingurumen-arauak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.

- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Hodi industrialen diseinua.